

ZENBAT BURU
Lourdes Zubiaurre

ERREPORTAJEA
Azterketak,
urdukitasunez
betetako egunak

GEHIGARRIA
TxikiBARREN

BERBETAN
Roman Garatek
Urrezko Idazluma
jaso du Bilboko
Liburu Azokan

KIROLA
IMH - Elgoibar
eskubaloit taldea
Gipuzkoako kopako
irabazlea

BARRREN

1999ko ekainaren 11
VII. urtea - 282. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

EH
Euskal Herritarrok

PP

EAJ PNV

EA

i

EKAINAK 13

E
KERRA
PSOE

EA

PP

EH

i

E

UDAL HAUTESKUNDEAK



i

EA

EAJ PNV

PSE
EUSKADIKO EZKERRA
PSOE

“Herriko agintariak jendearentzat, eta ez jendea herriko agintarientzat”

KENSINGTONek AURKEZTEN DU:

IKASFUN®

**GUZTIZ
BERRIA**

UZTAILEKO IKASTAROAK

ADINA	MAILA
6-8	Hasi berriak
9-11	Oinarrizkoa
12-13	
14-16	Ertaina

Ordutegia: 9:30etatik 13:30etara

INGELESA - FRANTSESA* - ALEMANA*

- Denbora libreko ekintzak
- Ingelesa egoera errealetan
- Lehiaketak eta txapelketak
- Kirola
- Argazki rally-ak
- Ekintza artistiko/sortzaileak

* Eskeraren arabera

Deitu eta hitz egingo dugu!

KENSINGTON

P. Muguruza etorbidea, 8
Tel. 943 74 02 36/ 74 35 12
E-posta:
kensington@redestb.es

Elgoibarren
geroa, zure esku



zure botoa

eusko

alkartasuna





LOURDES ZUBIAURRE

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Emakumea eta kirola

Kaixo lagun:

Zure azken berriak asko poztu nau, kirola egiten hasi zarela entzun dut eta askoz hobeto sentitzen zarela, bai fisikoki eta baita mentalki ere. Gogoratzen al duzu zertaz hitz egiten genuen gure berriketaldietan?

XXI. mendean sartzear gauden honetan badirudi gauza batzuk aldatzen ari direla (beste batzuk, tamalez, ez dira ezertxo aldatu; gudak, gorrotoak...), ikusi besterik ez dago teknologiak eta zientziak hainbat alorretan egin dituzten aurrerapausuak. Baina guri, axola zaizkigun aurrerapenak eta abantailak emakumeon alorrean gertatu direnak dira. Mendebaldeko herrietan eta Europan, etxeko lanak banatzeko joera nagusituz doa eta etxeko lanik astunenak errazten dituzten tresna eta makina ugari daude. Soldata baten truke egindako lanbideei esker, gizarteratzea lortu dugu, hau da, ia gizonekin parekatzea lortu dugu hainbat alorretan, eta lehenago gizonen bakarrik zegozkien eskubideak geureganatu ditugu. Medikuntzako aurrerapenei esker, haurra izateko moduak asko leundu dira, emakumeontzat abantaila handia izan da. Kiroletan, kulturean eta artean ere indar handiz ari gara sartzen. Baina niri interesatzen zaidana lagun maittea, zera da: gero eta emakume gehiago gara eta edozein erako kirolak egitera animatzen

garenak. Elgoibarren bertan; San Lorentzon, Kiroldegian edo Mintxetan, edonon, ikus daitezke emakumeak kirola egiten, eta ez nolanahi gainera. Beste emakume askok kirola egiteko modu arinagoak aukeratzen dituzte, pasiarak emanez edo kiroldegiko dantza ikastaroetan parte hartuz. Baina ikusten duzunez, poliki-poliki leku guztietara ari gara heltzen. Kirola egitea, egunero bizimoduak gure gorputzetan lagatzen dituen koipeak eta antsietateak baztertzeko modu ezin hobea da, gazteagotu egiten gaitu. Ez al zara nire iritzi berekoa? Gaur egun, medikuntza naturalak eta baita ohizkoak ere, estresa uxatzeko kirola egitea gomendatzen dute. Beraz, ez daukagu aitzakiarik ezezkorik emateko.

Gaur egun, medikuntza naturalak eta baita ohizkoak ere, estresa uxatzeko kirola egitea gomendatzen dute. Beraz, ez daukagu aitzakiarik ezezkorik emateko.

gure bizimoduak gure gorputzetan lagatzen dituen koipeak eta antsietateak baztertzeko modu ezin hobea da, gazteagotu egiten gaitu. Ez al zara nire iritzi berekoa? Gaur egun, medikuntza naturalak eta baita ohizkoak ere, estresa uxatzeko kirola egitea gomendatzen dute. Beraz, ez daukagu aitzakiarik ezezkorik emateko.

Niri asko gustatzen zait kirola egitea, izerdia azalean irristatzen nabaritzea. Baina ondotoxo dakizu zuk zenbat kostatzen zaigun oraindik kirola egiteko denbora libre bilatzea. Gure aisialdirako denbora bilatzeko, egunero ibiltzen gara etxekoekin istiluetan eta eztabaidetan. Batzuetan badirudi emakumeok ez daukagula besteek adina eskubiderik aisialdirako.

Beno, besterik gabe, aurki aurrez-aurre hitz egiteko aukera izango dugulakoan agurtzen naiz, ea hurrengoan mendi itzuli bat egiteko geratzen garen?.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

Publizitatea:

☎ 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com

Helbide informatikoa:

www.ihardun.com/barren

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarria

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea

PUBLIZITATEA Maitane Cid

MAKETATZAILEA Bea Ansola

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZIA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Ainhoa Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen,

Iban Urizar, Amaia Urzelai,

Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

AZALEKO ESALDIA Gotzon Garateren liburutik

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko

Jaurlearitzako Kultura

Sailak eta Foru

Aldundiak diruz

lagundutako

aldizkaria.



Ongarri Zine Klubari eskerrak

Ongarri Zine Klubak hartu du udazkena hurbildu arte bere ohizko atsedendia. Ostegun eta ostiral ugaritan atseginez ikusi ditugu pantaila handira ekarritako proposamenak. Aurtengoan ere, aukera anitza eta irizpide argiekin eginiko hautaketa eskaini digute.

Ohar honen bidez, zinezale garen elgoibartar batzuen eskerra luzatu nahi izan dut, nire asmoari publikotasuna emanaz herriko astekaria dela medio. Sarritan, herrian antolatzen diren hainbat eta hainbat ekintzaz disfrutatua ahal izaten dugu, eta gero ez dugu okasiorik aurkitzen bultzatu eta suspertu direnak baloratzeko. Motibazioaren motorrari, ikusleak garen partetik ematea dagokigun erregai kopurua eskaini nahi diogu gutxienez.

Nire iritzia ez da zine aditu batena, zale batena baizik, baina ikustera emandako filmeen hautaketa aparta iruditu zait.

Nire ustetan, gaiak aukeratzeko aniztasun irizpideek eta sail edo genero ezberdinetakoak izateak bilduma bikaina osatzera eramanez Ongarri taldea. Ostegunetako zita asko ahaztezinak bilakatu dituzte, izenburu bakar batzuk aipatzekotan, bereziki gogora ekarri nahi izan ditudanak honako hauek dira:

Character, Mike Van Diemena; *El invitado de invierno*, A. Rickmanena; *La manzana*, Sarah Malkhbfena; *Affliction*, P. Schraderrena; eta *Cube*, Vincenzo Natalirena.

Filme gehiago datozkit burura, baina hauen aipamena ezinbestekoa iruditzen zait, liluratuta utzi baininduten. Filme batzuek hausnarketa intimista baimendu didate, beste batzuek zinea egitea eta ondo egitea zer dena adierazi didate. Beste batzuen gidoiak nabarmenak dira, bakarren batek, edertasuna eta poesia sormen apaletik irudi bilakatu du sentimenean gozamenerako...

Hitz laburrak eta xumeak dira, eskainitako filme bilduma goraiatzeko, eta zaila egiten zait gozatu ahal izan dudana adieraztea. Beraz, eskainitako magia guztiarengatik, eskerrik asko.

M.Z.

Eulogio Perez jaunari EAJren erantzuna

Orain arte Getxoko pertsona bat izan dugu PPko zinegotzi bezala; hemendik aurrera, badugu beste hautagai bat, Eulogio Perez jauna, PPko konbertitu berria. Udala honetako EAJ-PNVri lezioa eman nahi dio pertsona honek, baina guk jakin badakigu, ez dituela herri honetako kirol instalazioak eta, are gutxiago, baserri bideak eta auzoak ezagutzen.

Hala ere, Perez jaunak oso ezaguna izan behar du legea alde batera utzita egin dituen 'abileziengatik'. Hona hemen, besteak beste, bere curriculum-ean aipa daitezkeen batzuk:

- Luxuzko autoekin egindako negozioak.
- Bidegabe jabetzeagatik jarritako salaketak.
- Trafiko segurtasunaren kontrako delituengatik (alkoholemia) jarritako isunak.
- Agiriak faltsutzea, ertzainarena egitea, eta abar.

Perez jauna, gure ustez, zu ez zara pertsonarik egokiena diru sarrerak eta irteerak zorrotz kontrolatu behar direla esateko. Gainera, euskara nola bultzatzen duzuen ikusirik (euskara administrazioan eta hezkuntzan baztertu egiten duzue), ez ote duzu, Perez jauna, PPn izena eman, Udalean zure abileziak eta trapitxeoak erakusteko?

Erantzuna elgoibartarrek emango dute ekainaren 13an; Udaleko EAJ-PNVren erantzuna, PPko hautagaiaren moralitate falta kontuan izanik, argia da: "Ezezko Borobila"

Elgoibarko Udaleko EAJ-PNV

Eskubaloi zaletuei:

I datzi honen bitartez, I.M.H-Elgoibar Eskubaloi taldeak, denboraldi guztian erakutsitako jarrerarengatik, eskerrak eman nahi dizkizue eskubaloi zaletu guztiei. Aurreko astean irabazitako Gipuzkoako Kopa, guztion artean daukagun jaigiro aproposaren fruitua da, hori dela-eta, Elgoibarko eskubaloiak bere maila eta ilusioa mantentzeko, ezinbestekoak zaretela esan nahi dizue gure taldeak.

Eskerrik asko eta aupa Elgoibarko eskubaloi taldeak!

IMH-Elgoibar eskubaloi taldea.

BARENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.

KEXAK

◆ Herritar batek honako ke-
xa hau azaldu digu: “**San
Lorentzo auzora bidean,
Ibar-Txiki baserriaren pa-
rean, sasiak eta belar txar-
rrak izugarri hazi dira.**
Ondorioz, sugeak eta beste
hainbat animalia agertu dira
jendea paseatzen ibiltzen
den bidean. Lehen, *Alcorta*-
koek urtean behin mozten
zituzten sasiak, tailerrari da-
gozkion lurra baitira. Bai-
na, badirudi azken aldian
ahaztu egin zaiela. Herritar
asko pasatzen den lekua de-
la kontuan hartuz, belar eta
sasiak moztu ditzaten eska-
tuko nieke”.

◆ Euskaltzale batek deitu
digu honako kexa hau argi-
taratzeko: “**Benetan hase-
rre nago Caritasekoekin.**
**Ekainaren 6an hileta ba-
tera joan nintzen eta Cari-
tasen diptiko bat eman zi-**

**daten sarreran. Papera
eskuan hartu eta irakurt-
zen hasi nintzenez sutan
jarri nintzen, dena gazte-
lania hutsean baitzegoen.**
Batzuek euskararen aldeko
etengabeko lanean gabil-
zan bitartean, beste batzuei
badirudi ez zaiela batere in-
porta gure hizkuntza. “Txar-
kurraren salara’ bidaliko ni-
tuzke denak”.

◆ 13 eta 14 urte bitarkeko
gazte koadrila bat euren
adinekoentzat lokal faltaz
kexatzera etorri zaigu. “**La-
runbatetan, batez ere,
dantza egiteko, guri gus-
tatzun zaigun musika ent-
zuteko eta gure adin bere-
ko gazteekin elkartzeko
lokal bat nahi dugu.** El-
goibarren dauden taberna,
diskoteka, edo lokal guztiak
gu baino nagusiagoentzat
pentsatuta baitaude”.

TXALOAK

◆ Emakume batek **Parrokiako arkupeak garbitu dituzten
emakumeak txalotu nahi ditu,** “oso zikina egoten da eta ba-
zen ordua norbaitek zerbait egiteko. Emakume bolondres
hauek txalo bat merezi dute, baina uste dut beste norbaiti da-
gokiola arkupeak garbitzeko ardura”.



BAI, ESAN?



J. Antonio Osoro


Karakate Mikologi
Elkarteko Lehendakaria

*Aurten beteko du **Karakate Mikologi Elkarteak** sortu zene-
ko 25. urteurrena. Hori dela-eta, larunbatean, hilak 12, os-
pakizun ekitaldiak izango dituzte. Gu, elkarteko lehendaka-
ria den **Jose Antonio Osoro**rekin egon gara elkartearen so-
rteraren, bilakaeraren eta bertako kontuen berri jakiteko.*

- **Noiz eta nolatan sortu zen Karakate elkartea?**
- 1974an sortu zan. Hiru edo lau koadrila elkartu ginan so-
ziedade bat eitzeko asmuakin. Kredito bat atera gendun eta
San Roke auzuan zauan lokal bat hartu gendun. Gero, so-
ziedade moduan, aktibidade bat bihar zan eta guk mikolo-
gia aukerau gendun. Elkartian mikologiarako komisio per-
manente bat dao, urte guztian horretara dedikatzen dana.
- **Zein funtzio betetzen ditu elkarteak?** - Elkartea gastro-
nomiko bezela funtzionatzen dau gehixenbat. Bestalde, ur-
tian behin perretxiko lehiaketia antolatzen dou 14 urteik
beherako gaztientzako. Gero, irabazliak Nafarruara juten
dia direktibakuekin perretxikotara. Herriko ekintza asko-
tan ere kolaboratzen dou. *Morkaikon* Mendi Itzulian, San
Bartolome jaixetan saldia eta txorizua banatzen, jubilaueri
eta gaixueri ere jaten eman izan dieu...
- **Gaur egun zenbat bazkide zarete?** - 74 bazkide gera, da-
nak gizonezkuak. Emakumiek sarrerria libre dake, gainera,
bentaja batekin, jarri eta jan itxen dabe, sukaldian gizonez-
kuak aritzen geralako. Estatutuak ez dakit oin zela dauden,
baina ez da inoiz planteau emakume bat bazkide itxeko ka-
sua, momentua ailegau ezkeru, ikusiko litzake.
- **Nola ospatuko duzue 25. urteurrena?** - Larunbat ho-
netan, hilak 12, hildako bazkidien aldeko mezia daukagu
Parrokixan. Gero, bazkidiok argazki bat aterako dou elkar-
tian ipintzeko, eta ondoren danok batera bazkalduko dou
Karakaten. Bazkalostian, 25. urteurreneko insignia bana-
tuko jako bazkide bakoitzari. Aurtengo perretxiko lehiake-
ta ere berezixa eitzen saiatuko gera, Karakate elkartian 25.
urteurrena dala-ta.



I. URTEURRENA
1998ko ekainaren 21ean, 71 urte zituela hil zen
ANTONIA GALDOS BASKARANen oroimenez
URTEURRENEKO MEZA izango da
Madalan larunbatean, hilak 19, arratsaldeko 19:30ean.
Joaten zaretanoi eskerrak alde zurretik.



$$\lim_{n \rightarrow \infty} \left(\frac{n+3}{n+2} \right)^n = \lim_{n \rightarrow \infty} \left(\frac{n+2+1}{n+2} \right)^n$$

Milaka ikaslek egin beharko die aurre ekaineko azterketei egunotan. Kurtso bukaerako azterketak edo selektibitatea, egoera eta tentsioak betikoak dira, urduritasuna, kezka, tentsioa... Azterketak egin behar dituzten ikasleek beti daukate beldur bera, urte guztian neke handiz ikasitakoa orri txuri batean eta minutu gutxitan azaldu beharra, alegia. Ikasleak urduri egotea ulergarria da eta senideek inork baino hobeto dakite hori, beraiek baitira azterketa garaian semeen umore aldaketak gertutik jasaten dituztenak. Elgoibarko ikasle gazteek azterketa garaiak nola bizi dituzten jakiteko, ikasteko erabiltzen dituzten metodoen berri izateko eta larritasunak uxatzeko zer egiten duten jakiteko hitz egin dugu protagonistekin.

Aurten aldaketa nabarmenak igarri dituzte batxilergoko, heziketa zikloko eta beste era batzuetako ikasleek. Ikastetxe publikoetan, iraileko azterketak desagertu egin dira eta selektibitateko azterketa ekainean egingo da, hau gainditzen ez bada, uztailan errepikatzeko aukera izango da. Selektibitatean gauza asko daude jokoan, ikasleek ateratzen duten notaren arabera aukeratu beharko baitute karrera. Aurten araudia aldatu dute eta selektibitatea nahi adina aldiz errepikatu daiteke norberak behar duen nota lortu arte. Dena dela, ikasleek berdin sufritzen jarraituko dute.

Selektibitatea, probarik gogorrena

Lorea Gabilondo, 18 urteko elgoibartarrak LOGSEko bigarren maila bukatu berri du eta selektibiterako prestatzen aurrkitu genuen. Ikasteko dituen ohiturei buruz hitz egin genuen berarekin. “Azterketa eguna baino 2-3 egun lehenago ikasten dot, ahal badot asignaturarik zailenetatik hasten naiz. Irakurri, azpimarratu, eskemak in, ulertu eta ikasten saiatzen naiz. Asignatura batzuetan ulertu baino gehixao memorizau itxen dot. Gabetan ikastia gustatzen jata eta beti nere kuartuan. Azken eguna errepasatzeko bakarrik erabiltzen dot”. Azterketak ikasi-

takoa neurtzeko modu txarra direla iruditzen zaio, “asignaturia dominauta euki arren, egun txar bat edozeinek euki dezake. Ezin leike urte guztiko lana egun eta



Lorea Gabilondo


nota baten arabera neurtu. Azterketa bakarri biharrian 3 edo 4 azterketa in eta medixia ateratzia justuaua izango zan”. Azterketa garaian izateko era asko aldatzen zaio Loreari, “agobiauta eta urduri nago eta gurasuekin nahiko gaizki kontopontzen naiz, normalian baino kontestazio gehixo ematen diuet, baina ohixuta daude. Hala ere, asko daoz ni baino urdurixo eta gaizkio pasatzen dabenak, la-

Asier Uberak 15 urte ditu eta D.B.H. 4. maila ikasten ari da. Asierrek irakasgaiak gainditzeko arazorik ez dauka. Azterketak ez ditu batere gustuko, “azterketa egunetan nahiko gaizki pasatzen dot, normalian azkenengo egunian bakarrik ikasi arren, etxian egun gehixo pasau bihar dia eta ez da beste ezertarako denborarik eoten, beti nao azterketetan pentsatzen eta ahal dan azkarraren bukatzia bakarrik nahi izaten dot. Batzuetan ez jata inporta ondo edo gaizki in doten, bukatzia da kontua, horregatik klasian itxen ditxugun lanak kontuan gehixao hartu biharko liake-



Asier ubera

la uste dot”. Asierren ikasteko modua oso normala da, “iluntzian ikastia nahixoa dot, apuntiak azpimarratuz eta laburtuz ikasten dot eta bihar doten gauza bakarra isiltasun piska bat da”.



Itziar leiaristi

Itziar Leiaristik 16 urte ditu eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (D.B.H.) ari da ikasten. Etorkizunean, gizarte zientziekin erlazioa duen karreraren bat ikastea nahiko luke. Datorren astean

hasiko ditu azterketak eta badaki gogorrena geratzen zaiola, “ekaineko azterketak oso astunak izaten dia, 4 egunetan 7 azterketa itxen ditxugu eta oso urduri jartzen naiz. Dana ikasteko astirik ez dakatela konturatzen naizenian asko agobiatzen naiz. Lo gitxio itxen dot eta jan ere desorduetan. Hala ere, merezi dau, egun batzuetan burua asko nekau arren, in eta pakia izaten da”. Itziarren iritziz, ikasketetan ez dago errezeta magikorik, “goguakin eta buru belarri ikasi ezkeru gaintzen dia. Beste bide batzuek ere badaude, ‘Txuletak’ adibidez, ni oso urduri jartzen naiz ‘txuletekin’, ez dot horretarako balixo”.

Jose Luis Fernandez irakaslearen ere hitz egin dugu. Berak azaldu digunez, azterketa egunak gogorak dira irakasleentzako. “Ikasleen artean okerrera doan joera bat nabari dugu azkenaldian, kompetentzia eta konpetibitate nahastan ari dira. Konpetentzia edo gaitasuna, jakinduria maila handiagotzeko bideratutako ikasketak liriteke. Konpetibitatearen helburua, berri, nota zehatz bat ateratzea da, zerbait ikasteak baino, azterketak gaintitzeko du garrantzia”. Jose Luisek azaldu digunez, azterketak gaintitzearekin obsesionatuta dauden ikasleak segituan antzematen dituzte, “emaitza onak ateratzera behartuta daude eta



J.luis feman-

euren buruari ahal dutena baino gehiago eskatzen diote. Askok gaizki bukatzen dute, estresatuta batzuek eta arazo larriagoekin beste batzuek. Izan ere, medikuntza ikastea nahi duen gazte batek, sakrifizio handia egin behar du beharrezkoak dituen nota altuak lortzeko; lagunak alde batera utzi eta etxean ordu asko pasatu”. Jose Luisek argi dauka gaztaroa bizitzako une garrantzitsua dela, “erlazioak sendotzeko eta bizitzaren berri izateko garaia da”. Gero, notarik onenak atera dituzten zenbait gazte lan munduan sartu eta ezuzteko galantak egoten dira. Askok izakera eta pertsonen arteko erlazioetan gabeziak dituzte eta ezin izaten dira moldatu. Esan dudan guztiagatik presio eta tentsio asko egoten da azterketetan.

ERRAZAGO IKASTEKO ZENBAIT AHOLKU:

- Irakasgai zailenak eta errezenak tartekatu.
- Aurrez beharko duzun denbora eta egutegia planifikatu
- Memoriak ikastea baino hobea da gauzak ulertzea.
- Beharrezkoa bakarrik azpimarratu.
- Laburpenak norbere hitzekin egin.
- Goizak dira ikasteko unerik egokienak eta irakasgaiarik zailenetatik hazi
- Arratsaldeko lehen orduak dira txarrenak. Bazkaloetan logurea izaten da.
- Arratsaldeko azken ordua erreparatzeko eta buruz ikasteko aproposena da.
- Gava lo egiteko eta atseden hartzeko da, ez ikasteko.
- Beti leku berean ikasi. Temperatura eta bentilazio egokiarekin.
- Jarlekua ez dadila erosoegia izan. Bizkarraren edukitzea komeni baita arnasa ongi hartzeko
- Ariketa fisikoa egitea komeni da
- Elikadura orekatua jarraitu. Azukre, gatz, txarriki eta txokolate gutxi.
- Sendagai estimulatuzaileak eta lasaigarriak ez dira gomendagarriak.
- Otordu bat baino gehiago egitea komeni da. Esna egoten laguntzen du.

Mari Jose Garmendia sikologoak emandako aholkuak

EKAINAK 13, UDAL HAUTESKUNDEAK:

Nolakoa izan behar du alkatetzarako kandidatuak?



LUCIA ZABALA

73 urte, etxeandrea

Honraua eta lana eitxeko gogua dakana izan biharko litzake. EAK uste dot kandidato oso ona aurkeztu dabala. Gainera gaztia da eta jakingo dau zer in bihar daban.



MANUEL JESUS CANCIO

37 urte, ostalaria

Garbi hitz egiten duena, eta bere buruarekin ziur dagoe-na. Nik uste dut Elgoibarko alkatetzarako aurkeztu diren kandidatuak egokiak dira.



CARLOS VILA

50 urte, pensionista

Hitza betetzen duena. Baina ez dago hori egiten duen politikorik. Hauteskundeetan irabazten dutenek gure arazoak konpondu beharrean beraien soldata igotzen dute.



M.CARMEN GONZALEZ

52 urte, etxeandrea

Herriaren onerako ekintzak egiten dituen, eta lanerako gogoa daukana. Hauteskundeen aurretik promesa asko egiten dituzte, baina gero denak betetzea da kontua.



ADELA PASCUAL

56 urte, etxeandrea

Agindutakoa egiten duena. Gehienek asko hitz egiten dute, baina gero ez dute esandakoa betetzen. Alkatetzarako kandidatuak prestatuta daudelako aurkeztu dira.



MANUEL LOPEZ

61 urte, jubilatua

Zintzoa eta bere terrenoa ezagutzen duena. Buru piska bat duenak esperientzia hartu dezakeela pentsatzen dut. Elgoibarren alkatetzarako aurkeztu direnak egokiak dira.

Mediku Oftalmologoa

Laserrarekin interbentzioak BILBON

Urtzaile kalea 2, 1 · EIBAR Tel.943 20 18 44

- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!

*Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin.
Zatoz informazio eske!*

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A
Tel: 943 74 10 11

ISPILUARI DEGIRA



Luis Lamas -


BELAUSTEGI jatetxekoa

- Bizitzeko leku bat?** Euskal Herria.
- Zein da sukaldaria zure etxean?** Ni.
- Nongo gastronomia duzu gustukoena?** Oraindik ez dut euskalduna baino hoberik dastatu.
- Gustuko sukaldari bat?** Pedro Subijana. Janari arinak eta artistikoak prestatzen ditu.
- Plater bat?** Bakailoa pil-pil erara.
- Zein musikarekin girotuko zenuke jatetxe bat?** Musika klasikoarekin, new age-arekin edo pelikulen soinu bandekin.
- Udarako menu bat?** Imaginazioarekin entsalada mordo bat egin daitezke.
- Etxeko espezialitatea?** Edozein eratako saltsak.
- Eta zuri, zein eratako 'saltsak' gustatzen zaizkizu?** Jendearekin harremanetan egotea eskatzen duen edozer.
- Tabernaria ez izatekotan zein lanbide aukeratu zenuke?** Izatez abeslaria eta aktorea naiz eta mundu horrek asko erakartzen nau.
- Urteak pasa ahala, izaera ozpindu ala ardo ona beza-la hobetuz doa?** Jasotako heziketak eta ingurukoek erabakitzen dute hori.
- Zorionsua izateko zein osagai sartuko zenituzke lapi-koan?** Norbaitek baleki lapiko bat bete urre izango luke.
- Ajea kentzeko edari bat?** Batzuek diote, onena eguna azkena hartu zenuen edariarekin hastea dela. Baina hobere-na azken kopari uko egitea da.
- Zer ospatuko zenuke topa eginez?** Dena ospatu behar da, egun bat gehiago bizirik gaudela ere bai.
- Barkatzen ez duzun errua?** Jendeak bere benetako izaera ezkutatzea.
- Amets bat?** Bidaiatuz mundu guztia ezagutzea.
- Udako oporrak pasatzeko leku bat?** Edozein irla, Kuba, Sheycheles irlak...
- Zein zine izar gonbidatuko zenuke afaltzera?** Carmen Maura edo Susan Sarandon.
- Belaustegi jatetxera joateko 3 arrazoi?** Paisaia, baserria bera eta, dudarik gabe, janaria.




ESKERTZA

1999ko ekainaren 5ean, 82 urte zituela hil zen
ALEJANDRO AIZPURUA AROSTEGIren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

1999ko ekainaren 6an, 75 urte zituela hil zen
TOMAS ZUBIA ARREGIren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Soldadorean formaziorako tailerra inauguratu dute Elgoibarren

Inaxio Oliveri Hezkuntza Sailburuak lanbide heziketa sistema produktiboetara egokitzeko beharra azpimarratu zuen

Joan den ostegunean, hilak 3, inauguratu zuen Iñaxio Oliveri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailburuak, soldadorean formaziorako tailerra Elgoibarko Herri Institutuan. Proiektua Elgoibarko Makina Erreminta Institutuak eta Herri Institutuak bultzatu dute, eta aurrera ateratzeko ezinbestekoa izan da *Danobat* taldearen, Azpeitiko *Sarralle* enpresaren, Elgoibarko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza. Tailerraren aurkezpenean izan ziren Iñaxio Oliveri, Gillermo Garate Elgoibarko alkatea eta bi ikastetxeetako zuzendariak diren Jose Rejo eta Iñaki Konde. Inguruko enpresek zeukaten soldadorean beharrak bultzatuta sortu da martxan jarri berri den lantegia, eta ikasleak ezezik orain lanean dihardutenak ere hezitzeko izango da.

Iñaxio Oliverik, Erreminta



Argazkian, ezkerretik hasita, Iñaki Konde, Gillermo Garate, Iñaxio Oliveri eta Jose Rejo.

Makina Institutuak eta Lanbide Heziketa Institutuak, proiektua martxan jartzeko izan duen inizatiba goraipatu zuen. Oliveriren esanetan, "beharrezkoa da lanbide heziketa sistema produktiboetara moldatzea. Izan ere, enpresen beharrak zein diren jakiteko ahalmena eduki behar da, eta horretarako heziketa zentruen eta enpresa

munduaren arteko komunikazioa behar da".

Bestalde, Iñaki Kondek, Herri Institutuko zuzendariak, Herri Institutuak inguruko enprekin elkarlanean burutu dituen ekintzen berri eman zuen, bereziki Automozio Departamentuak egindako proiektuak azpimarratu nahi izan zituen. Kondek aukera aprobetxatu zuen Hezkuntza Sailburuari eskaria luzatzeko. Lanbide Heziketako Zentru Integraletan lan dinamikak, enpresekiko elkarlana eta proiektu berriak bultzatzeko erraztasunak emateko eskatuz, eta baita Automozioa Berezitasun Singular izendatzeko ere.

Soldadura tailer berria ikastetxe sortzaileen eta Elgoibar inguruko enpresen arteko lankidetzatik atera da. Formazioan zeuden hutsuneak aztertu ondoren, lantegi honen beharra ikusi baitzuten.

10 ikaslek jaso dute ohorezko matrikula Herri Institutuan

98/99 ikasturtean ohorezko matrikula atera duten Herri Institutuko ikasleak dira argazkikoak. Goian, ezkerretik hasita Daniel Lopez, Aitor Arakistain, Xeber Loiola, Mikel Andonegi, Saioa Iriondo eta Leire Agirrebeña. Behean, Kepa Mendikute, Josu Gabilondo, Miren Etxezarreta eta Ainhoa Mendikute. Herri Institutuko arduradunek ikasle hauek zoriondu nahi dituzte ikasturtea oso emaitza onekin amaitu dutelako.



Auzotar ugari elkartu zen Urruzuno bailarako jaietan

Joan den asteburuan Urruzuno bailarako bizilagunek auzoko jaiak ospatu zituzten. Larunbatean, hilak 5, jaigiroa izan zen nagusi bailaran. Arratsaldean, txaploekin eman zieten jai ei hasiera, eta meza entzun ostean, edariak eta pintxoak banatu zituzten lokal sozialean. Trikitixa doinuak eta herri kirolak izan ziren jai ei amaiera emateko aukeratutako ekitaldiak. Haurrek ere izan zuten jaietan disfrutatzeko aukera, beraientzat jolasak antolatu baitzituzten.



Santa Ana kalea eta San Rokerako bidea asfaltatzen hasi dira

Aste honetan hasi eta datorren asteazkenera bitartean obretan arituko dira Santa Ana kalean, San Roke auzora doan bidean eta Plaza Txikian. *Provisa* enpresak Santa Ana kalea aldenik alde asfaltatuko du, baita San Rokerako doan bidea, trenbide paretik autopistako zubira arte, eta hirugarrenik *Telefonica* inguruan dauden aparkalekuak. Lan hauek bi egunetan amaitzeko asmoa zeukaten, baina baliteke obrak hilaren 14ra arte luzatzea. Astelehenean, hilak 14, hasiko dira, hain zuzen ere, Plaza Txikia asfaltatzen eta asteazkenera arte arituko dira lan horretan. Asfaltatze lanek guztira 20.000.000 pezeta inguruko kostua izango dute. Kale hauetaz gain, baliteke aurrerago Elgoibarko beste zenbait gune asfaltatzea, baina Udalaren Hirigintza Saileko arduradunek ez digute adierazi ziur zein kale izango diren.



Egur Arte Tailerraren erakusketa ekainaren 19ra arte egongo da irekita

Egur Arte Tailerrak urtero antolatzen duen erakusketa inauguratu zuten joan den asteartean, hilak 8. *Egur Arte Tailerreko* ikasleek ikasturtean egindako lanak hilaren 19ra arte izango dira ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan. 40 lagun daude gaur egun *Egur Arte Tailerrean* eta beraiek egindako 60 lan ikusi ahal izango dituzte bertara hurbiltzen direnek, esmalteak eta pintura lanak dira gehienbat. Paisajeak, bodegoiak eta era askotako gauzak agertzen dira koadroetan islatuta. Argazkian inaugurazio egunean elkartu ziren ikasleak agertzen dira. *Egur Arte Tailerrekoek* esan digutenez, “marrazteko zaletasuna duen edonork dauzka atek zabalik. Horretarako, Ubitarte plazan duten lokaleran joan daiteke informazio eske”.

11 elgoibartarrek eman zuten izena organo donatzaile izateko

Joan den ostegunean, hilak 3, organu emaileen eguna zela eta, informazio mahaia jarri zuten larunbat goizean Plaza Handian. Bertara gerturatu zirenek organu emaile egiteko aukera izan zuten, guztira 11 lagunek eman zuten izena. Gaur egun Gipuzkoan 43.000tik gora organu emaile daude, hauek hiltzean beraien organuak baldintza onean egonez gero, beste pertsona batzuen bizia salba dezakete. Euskadin *Alcer* elkarteak arduratzen da gai honetaz, eta organu emaile izan nahi dutenei gogorarazi nahi diete edozein farmaziatan aurkituko dutela donazioari buruzko informazioa. Urtero, organu emaileen eguna hurbiltzen denean informazio mahaia jarri ohi dituzte.

Istiluak izan ziren Madrilen, "Pello Zaharra"ren epaiketaren ostean

Joan den asteazkenean, hilak 9, Madrilen epaitu zuten Jose Luis Ansola (Pello zaharra) elgoibartarra. Elgoibartik eta Oreretatik epaiketara joandako 18 lagunek, istiluak izan zituzten ultraeskuindarrekin eta Ynestrillasen jarraitzaileekin epaiketatik atera zirenean. Madriletik etorri berritan, bertan izandakoek adierazi zigutenez, “epaiketatik atera garenean ultraeskuindarrek inguratu ostean, arraultzak eta harriak bota dizkigute eta mehatxatu eta iraindu egin gaituzte. Poliziarren laguntza eskatu behar izan dugu. Ordubetan eta erdi pasatu ditugu zer egin jakin gabe eta oso urduri”.

San Bartolome jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa

Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketaren oinarriak kaleratu ditu Udalaren Kultura Batzordeak. Aurten bi kategoria izango dira, haurrena eta nagusiena. Gaztetxoan mailan 18 urtetik beherako elgoibartar guztiak parte hartu ahal izango dute. Teknika eta tamaina norberaren esku egongo da, eta guztira 6 sari banatuko dira maila honetan. Nagusien kategorian teknika librea da, baina ezinbestekoa da euskarri gogorrean aurkeztea. Tamainari dagokionez 210x210 edo proportzionala izango da eta bere neurrikoa diapositibaren kasuan. Kartel guztiak “Elgoibar, San Bartolome Jaiak 1999” lema agertu beharko dute, diapositibetan izan ezik. Lanak aurkezteko azken eguna ekainaren 28a izango da, ordua, berriz, eguerdiko 13:00ak. Nagusien mailako irabazlearentzako 60.000 pezetako saria egongo da eta lehenengo herritarrak 20.000 pezeta jasoko ditu. Informazio gehiago behar izanez gero, Kultura Sailera jo dezakezue (Kultur Etxea) edo ondoko telefonora deitu 943 74 21 58.



⇨ Udaleko arduradunek adierazi digutenez, 18 urtetik gorako 9.379 elgoibartarrek izango dute hauteskunde mahaietara botua ematera joateko aukera. Baina batzuek, aukera ezezik obligazioa izango dute, hauteskunde mahaien arduradun izatea egokitu baitzaie.

⇨ Goizeko 8:30ean egon behar dira **hauteskunde mahaiak** kokatuko diren ikastetxeetan. Jendearentzat, berriz, **9:00etan** irekiko dira kolegioetako atak. Egun guztian zehar eman ahal izango du nahi duen elgoibartarrak botoa, baina gaueko **20:00etatik aurrera** joaten denak atak **itxita** aurkituko ditu.

⇨ Gaueko 20:00etan mahai bakoitzeko arduradunek boto kontaktarekin hasiko dira. Kontaketa amaitzean **Correoseko** langileek emaitzak Elgoibarko Bake epailearengana eramango dituzte azken emaitzak.

BARRENeko irakurleei gogorarazi nahi diegu, **UDAL HAUTESKUNDEEN EMAITZEI BURUZKO ORRI BEREZIA KALERATUKO DUGULA A STELEHENEAN, EKAINAREN 14an**. Bertan Elgoibar eta Mendaroko Udal Hauteskunde emaitzak eta alderdi politikoaren balorazioak eskainiko ditugu.

EKAINAREN 13ko HAUTESKUNDE MAHAJETAN EGONGO DIREN ORDEZKARIEN ZERRENDA

■ PLAZA TXIKIAN ■

Maria Jose Gomez (mahaiburua)
Juan Jose Gonzalez (1. mahaikidea)
Gregorio Gonzalez (2. mahaikidea)

Amaia Makazaga (mahaiburua)
Blas Martinez (1. mahaikidea)
Valentin Martinez (2. mahaikidea)

Victor Zubiaurre (mahaiburua)
Juliana Lopez (1. mahaikidea)
Alicia Lobete (2. mahaikidea)

Alberto Garcia (mahaiburua)
Isabel Gonzalez (1. mahaikidea)
Jesus Maria Gonzalez (2. mahaikidea)

Valentin Hidalgo (mahaiburua)
Felisa Iranzo (1. mahaikidea)
Eugenio Intxausti (2. mahaikidea)

Teresa Lobete (mahaiburua)
Jesus Maria Maiztegi (1. mahaikidea)
Diego Luque (2. mahaikidea)

■ JUBILATUEN ETXEAN ■

Julite Perez (mahaiburua)
Ivan Ruiz (1. mahaikidea)
Dolores Rodriguez (2. mahaikidea)

■ SANTA KLARAKO ESKOLAN ■

Francisco Javier Garcia (mahaiburua)
Jose Maria Irusta (1. mahaikidea)
Dionisio Irisarri (2. mahaikidea)

■ P.MUGURUZAKO ESKOLETAN ■

Amaia Agirregomezkorta (mahaiburua)
Jose Antonio Alcibar (1. mahaikidea)
Bittor Ioseba Alberdi (2. mahaikidea)

■ SAN ROKEKO HAURTZAINDEGIAN ■

Pedro Cobos (mahaiburua)
Pilar Arrate David (1. mahaikidea)
Ander Cristobal (2. mahaikidea)

Javier Muñoz Mediavilla (mahaiburua)
Enrique Perez (1. mahaikidea)
Miguel Angel Parada (2. mahaikidea)

Paz Ruiz (mahaiburua)
Ane San Martin (1. mahaikidea)
Edurne San Martin (2. mahaikidea)

Angel Sanchez (mahaiburua)
Jose Manuel Parada (1. mahaikidea)
Iñaki Santos (2. mahaikidea)

■ URASANDIKO ESKOLAURREAN ■

Antonio Gurrutxaga (mahaiburua)
Trinidad Ipiña (1. mahaikidea)
Ana Maria Inchausti (2. mahaikidea)

■ ALTZOLAN ■

Amaia Alonso (mahaiburua)
Jose Juan Barrenetxea (1. mahaikidea)
Susana Azpilikueta (2. mahaikidea)

Iratxe Trinidad (mahaiburua)
Jon Uriguen (1. mahaikidea)
Fernando Uriarte (2. mahaikidea)

Txiki BARREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 54. GEHIGARRIA




Ikastolako DBH 2ko mutilen talde honek badu lana gero eta hobe izaten. Eskubaloia aurrera ateratzeko, jokalariek bakoitzak ahal duena ematea ez da ikasketa makala, ez eta taldea entrenatzen duten gurasoek eskaintzen duten dedikazioa eta eredu ere. Beraien

ahaleginez eta indarrez, Gipuzkoako eta Euskal Herriko Txapelketak irabazi ostean, Cadizen jokatu den Espainiako Txapelketarako sailkatu dira. Ikastolako ikasleek, irakasleek eta lagunek zortirik handiena opa diete. Ea laster kirolaren gailurrean ikusten ditugun.

Txistea

Donostiatik Bilborako autopistatik auto zahar horietako bat doa oso egoera txarrean: kristalik gabe, ate baten faltan, zeharo herdoilduta, etab. Durangoko peajera iristean, esaten dio hango kobratzaileak:

- Mila eta bostehun pezeta.
- Salduta! eureztat oso-osorik.



Jakitunen eskutik

Udako oporrak: lasaitasuna ala buruhaustea?

Udako oporrak ate joka ari dira, eta guraso askoren buruhaustea dator haurren atsedenaldiarekin batera. Etxe askotan gaztetxoek oporrak izan arren, gurasoak lanera joan behar izaten dira. Beraz, hor sortzen da aita eta ama askoren kezka: Zer egingo dut nire semearekin edo alabarekin ni lanean nagoen bitartean?. Adituen ustez, egokiena, haurrek eta gurasoek oporretako egun batzuk bederen batera igarotzea da. Baina gainontzeko egunetarako aukera asko daude.

Guraso batzuek seme-alabak aiton-amonen ardurapean lagatzen dituzte. Honela, esku onetan daudela jakiteaz gain, badakite adin bereko gaztetxoekin jolas egiteko aukera izango dutela, herri barruan bada ere. Herri txikietan bizi direnek, ordea, zorte handiagoa daukate, senitartekoek haurren lagunak ezagutzen dituzte, eta inolako beldurrik gabe, bakarrik ibiltzeko aukera ematen diete.

Baina badira oporrak etxean pasatzen dituzten haurrak eta gaztetxoak, edo batetik bestera ibiltzen direnak. Beste batzuek ikasturtea amaitu gabe balego bezala, ikastera behartzen dituzte.

Uda ikasketekin ahazteko garaia da, eta baita esperientzia berriak bizitzeko unea.

Egunerokotasunaz ahaztu eta ekintza desberdinak probatzeko aprobeixatu behar dira oporrak. Udalekuek aukera ezinhobea eskaintzen dute. Itxiak zein irekiak, herrian zein kanpoan, haurrek ongi pasatzeko eta lagun berriak egiteko parada eskaintzen dute. Gaztetxoek udaleku irekietan jolasak, irteerak, kirolak... egiten dituzte. Goizez eta arratsaldez begiraleen zaindaritzapean egoten dira, baina bazkaltzera eta lo egitera norbere etxera joaten dira. Udaleku itxietan, bestalde, astebete edo 15 egun igarotzen dituzte etxetik kanpo. Hauetan kirola, kantuak, eskulanak... egiten ikasten dute. Zenbait udalekutan ekintza horiek egiteaz gain atzerriko hizkuntzak ere ikasten dira.

Hona hemen, ingurukoak nahastu gabe, haurrek eta gurasoek oporretaz gozatzeko aukera bat, edo behintzat haurrak non utzi ez dakitenean buruhaustea arintzeko modua. Orain gurasoek eta gaztetxoek hitz egin eta denen artean erabaki beharko duzue aurtengo oporretarako plana. Beti ere kontuan izan behar da, gustu guztiak ez direla berdinak, ondorioz, ahal bada guztien gogoko gauzak konbinatu behar dira plana egiteko orduan.

Iturria: La Revista aldizkaria

Zer iritzi daukazuazterketei..... buruz?



Azterketak nola goazen ikusteko egiten dituzte, eta gaizki bagoaz, zailak direla esaten dugu.

MIREN IBARZABAL, 7 urte



Notak ipintzeko beharrezkoak dira, baina eguneroko lana eginez ipini beharko lituzkete notak. Munduko gauzarik txarrena dira.

SANDRA MONTES, 11 urte.



Oso zailak iruditzen zaizkit eta gainera nik zailagoak egiten ditut ner-bioso jartzen naizelako.

GORKA GARATE, 13 urte



RENE
JORRIN

11 urte

- 1- Tigrea
- 2- Nire belarriak
- 3- Batzuetan ohea egiten dut eta platerak garbitzen ditut
- 4- Tito
- 5- Patapalo
- 6- Arotza
- 7- Kanariar irlak
- 8- Telebista ikusten dut

Galde debalde

1. Zein da gehien gustatzen zaizun animalia?
2. Gustuko liburu bat.
3. Etxeko lanetan laguntzen al duzu?
4. Zein beste izen jarriko zenioke zure buruari?
5. Izozki bat.
6. Zein da lanbiderik politena?
7. Oporretarako leku bat.
8. Zein da ohera joan aurretik egiten duzun azken gauza?



ANDREA
CONDE

- 1- Txakurra
- 2- El libro de la selva
- 3- Batzutan ohiak itxen ditzut eta gauzak jaso ere bai
- 4- Nerea
- 5- Frigopie
- 6- Ordenadorian ibiltzia
- 7- Zarautz
- 8- Haginak garbitxu

Zer dira... *oporrak* ...?

JOSEBA ELIA 9 URTE



Atsedena hartzeko eta ondo pasatzeko egunak, eskolan nota txarrak ateraz gero lana egitekoak.

AITOR NOVA 13 urte



Nobixiak in egoteko denboraldia, eta hondartzara joateko aldia.

MIREN RAMOS 9 URTE



Oporretara juteko nota onak atera behar dira, trankil eta lasai eguzkia hartzeko.

NAGORE LARRAÑAGA 7 urte



Niretzat oporrak ondo pasatzeko egunak dira.

ARANTZAZU ARANO 12 URTE



Urteko egunik onenak dira, nahi duzuna egin dezakezulako eta ez duzulako eskolara joan behar.

ASIER CARRARA 6urte



Oporrak festak dira eta nahi duzuna egiteko aukera izatea.

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Zer da hau?



2. Zer galdetu diegu?



DAÑI VIÑARAS
11 urte

"Kanpora joango naiz, Soriara. Han lagunak dauzkat, eta beraiekin jolasean ondo pasatuko dut. Futbolean, fronteni-sean eta kartetan ibiliko naiz".

OIHANA RODRIGUEZ
6 urte

"Debara joango naiz. Han hondartzan egongo naiz nire lehengusiarekin. Uretan jolasean ibiliko naiz eta ondo pasatuko dut".



3. HEGAZTIAK

PINGUINOA OSTRUKA
BELATZA ZIKOINA
PUTREA ARRANO
MIRUA



A S P I N P I L I P H
M A M U A K E T A I A
B E L A T Z A G O N B
A S A K I R U A L G I
N I P U T S E R P U A
I S T R R P U A B I N
O M O T R I K U G N T
K L E S A L M I T O X
I P A O N A R R A A O
Z S I R I M I R I L R
H E G A Z K O M T R O
S O L U K E T A K I X

4. Asmakizunak

— Jaio eta hiltzen ari naiz etengabe hala ere bizirik diraut orain arte eta nire ohizko bidetik irten gabe korrika noa gelditzeke.

— Lehorreko txalupak: beti binaka dabilta maiteminduak bezala.

— Beti atarian deika eta inoiz ez da sartzen.

ERANTZUNAK: 1- Azeitunak, 2- Zer egingo duzu aurten go oporetan? 4- Ibaia, zapatak eta txirrina.

Elgoibarren jaio zen 1925ean. Filosofian dokto-ratua eta Teologian lizentziatua. Zazpi liburu ditu kaleratuak, horietatik bat, Etika eta Askatasuna, bere anaia Genarok gaztelarrera itzulita. Roman Garatek, bere anaia Gotzenekin batera Urrezko Idazluma jaso zuen duela gutxi Bilboko 29. Liburu azokan. Sari hau Bizkaiko Diputazioak eman ohi du urtero Euskal kulturaren eta Bizkaia izena hedatzeko lanean dihardutenen esfortzua eskertzeko.

ROMAN Garate

“Euskara kontuan dugun hutsunea euskaldun berriek osatu behar dute”

– **Urrezko Idazluma eman berri dizute, horrelako saria ez du edonork jasotzen, ezta?**

- Urtean behin-edo ematen omen da *Urrezko Idazluma*. Gutxi izan behar, beraz, hori jasotzen dutenak. Bizkaiko Diputazioak ematen duen saria da, eta emaleek diote urte luzetan egindako lanaren ordaina izan dela. Anaia Gotzonek eta biok oso pozik jaso dugu Bilboko 29. Liburu Azokan eman diguten saria.

– **Euskaldun berriak ekarri zenituen gogora saria eskertzeko orduan. Zer dela eta?**

- Euskaldun berriak aipatu nituen, bai, saria eskertzeko orduan. Aipatu beharrekoak ziren, nire ustez, euskaldun zaharron

iraupena, horiek gabe, amaitua litzateke. Euskara kontuan dugun hutsune izugarria euskaldun berriek osatzen dute eta osatu behar dute. Bestalde, urte askotan, nire unibertitate irakaskuntzan, euskaldunen taldearen erdia, gutxi gorabehera euskaldun berriak izan dira. Hori niri, pertsonalki poz zorion iturri ederra izan zait. Merito berezia dute euskaldun berriek.

– **Zertan diharduzu gaur egun?**

- Behin apaiztuz gero, apaiz izateari dagozkion egin-kizunetan ari naiz. *Pensamiento* izeneko Espainiako filosofia aldizkarian artikulua idazten ditut. Eta gizakiari dagozkion arazoetan, pertsonalki, pertsonatik pertsonara, laguntzen aritzen naiz.

– **Antropologia eta etika-ri buruzko lanak jorratu dituzu batez ere. Zergatik diozu gai horien inguruko liburuak ez direla errentagarriak:**

- Oso gutxi gara euskaldunok, gutxiago, jakina, euskara irakurleok. Gutxi bagara nobela eta literatura irakurleok, esan beharrik ez oso kopuru txikia dela filosofia, antropologia eta etika liburuen irakurleena. Ezin izan, bada, diru kontuan errentagarriak.

– **Azken liburua inprimategian omen duzu.**

- Inprimategian da, bai, azken liburua. Oraindaino argitaratutakoen artean sakonena, interesgarriena, gaurkoena da. Nire anaia Genarok eta biok egin dugu. Gaia, betikoa, gizakia. Gizakia bere erabateko funtsezko hiru alderdiekin: morala, duintasuna eta jaungoikoa. Nietzschekin eztabaidan jorratzen dut, batez ere, gizakiaren hirutasun honi. Asko dira eztabaida kideak, hasi Platonetik eta filosofari edo pentsalari garaikideetara arte: Dostoyevsky, Camus, Sartre, A. Machado, J.A. Marina, X. Zubiri, Cioran, Savater, U. Eco...


– **Euskal Kultura eta Bizkaia izena hedatzeko egin duzuen lana izan da saritua. Zein egoeratan dago, gaur egun, euskal kultura Bizkaian? Eta Elgoibarren?**

- Goruntz doa, zorionez, euskal kultura Bizkaian. Elgoibarkoa, BARRENen ikusten dudanez, harrigarri bizia, ugaria, aberatsa eta pozgarria egiten zait. Nire lagun handi batek esaten zidan bezala:

BESTEAK ESANA

“Gizon jatorra eta jakintsua. Edozein motako eta adineko pertsonekin oso ongi konpontzen daki.”

RUTH GARATE, besoetako.



Mercedes Arostegi Gamio

(1924-1965)



- 1924ko martxoaren 13an jaio zen Bizkaiko Somorrostro herrian. 3 anai-arreba izan ziren familian, bera zaharrena.
- Herriko eskola publikoan egin zituen gaztetako ikasketak. Familian, etxeko lanetaz arduratzen zen. 13 urterekin herriko ospitalean hasi zen lanean, eta bertan aritu zen 18 urtera arte. Etxera itzulita josteko zaletasuna hartu zuen.
- Ilusio handiz joaten zen lagunekin Barakaldoko, Sestaoko, Santurtziko eta inguruko herrietara dantzan egitera. Mercedesek beti izan zuen gustuko dantzan egitea. Sestaoko jaietako egun baten, Bilbon soldaduzka egiten ari zen mutil batekin aritu omen zen dantzan, eta ondoren bere senargaia izan zen. Geroago, bere betiko senarra izango zena.
- Gerra ostean, 21 urterekin ezkondu zen Elgoibarko Artetxe baserriko Eugenio Galarragarekin (gizon honek lan asko egin zuen C.D. Elgoibarki laguntzen). 5 seme-alaba izan zituzten. Baserrian bizi izan ziren berau desagertu arte. Oilategian eta baratzean lan egiten zuten. Baserria, gaur egungo Artetxe kalearen erdian zegoen.
- Mercedesek *Sigman* lan egin zuen 7 urtean. Emakume bikaina, pertxenta eta alaia, C.D. Elgoibarren jarraitzailea zen. C.D. Elgoibarki laguntzen urte pila bat egin dituen Aldo Galarraga bere semea da.
- Mercedes oso ongi moldatu zen herrian. Jatorra eta sinesmen handikoa zen, baita familia girokoa ere. Bere zaletasunik gogokoenena zinea ikustea zen.
- Bizitzan asko saiatu ondoren aterata zuen aurrera familia eta, sasoi ederra zuela, uste-kabea, 1965eko ekainaren 30ean hil zen, 41 urte zituela.




Jesus Ibañez J "Bergara" elgoibartarrak 71 urte ditu, eta duela 15 urtetik Torreviejan (Alicanten) bizi da. Euskaltzale potoa izan arren 30 urte

daramatza Euskal Herritik hurrin. "Valladolidera jun nintzan lehenengo eta oilotoki automatikuak fabrikatzen zitzun enpresa batian in naban lan". Jesussek aipatu digunez Torreviejara joan zen ondoren, "osasun arazuen ziala-eta, haize osasuntsuauen bila aldegin naban Elgoibartik. Ezin da sinistu hemengo klimiak itxen daban mesedia, Lourdesen bertan hemen baino mirari gitxio ikusten dia". Jesussek lagunetaz, senidetaz eta euskal ohituretaz asko gogoratzen dela aipatu digu, "aurresku bat ikusten dotenian edo euskal jaixak, emozionau itxen naiz. Gehixen jatekuaz gogoratzen naiz, beti eoten gera norbaitxek Tolosako babarrunak edo makailaua noiz ekarriko desiatzen. Esku pilota ere asko gustatzen jata eta astelehenero telebisuan diferiduan ematen ditzuen partiduak ikusten ditzut". Jesus hitz egiten entzunez gero ez dirudi 30 urte daramatzanik kanpoan, euskaraz ederki egiten baitu, "beti ahalegindu naiz hizkuntzia gordetzen, Jesus Anjel semiak ere 7 urtekin aldegin zaban Elgoibartik baina bertako edozeinek bezala itxen dau euskaraz". Gauza asko gogoratu arren oso gustura bizi da, "lagun batek dakan *Bar Kaixon* biltzen gera 10 bat euskaldun eta txikiteo ederra itxen dou. Kalera dirurik gabe irtezeko moduan nao, ezagun asko in baititzut. Semiari eta bixoi, 'Los Jesuses'

Pedro Muguruza, 5
Tel: 943 74 08 06
20870 ELGOIBAR

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ 943 20 35 15
☎ ABERIAK 943 20 31 25
Bista Eder, 11 (sotanoa)
● 20600 EIBAR

VIAJES  BIDAIAK
BILBAO EXPRESS

**bidai agentziak
babestutako atala**

Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12



ste honetako erretratu zaharra **M. Garciak** ekarri digu. Argazkia 1956ko *Corpus Christi* Egunean ateratakoa da. Garai hartan, komunio handia edo solemnea egiten zuten neskek Korpusti Egunekeo prozesioan loren petaloak botatzen zituzten, mieloz estalitako kaleetan "Santisimoa" pasatzen zenean. Neska gaztetxoagoak, berriz, aingeruz jantzita ateratzen ziren. Argazkian ikus daitekeen altarea, gaur egun Kultur Etxea dagoen lekuan jartzen zen. Argazkian agertzen

direnak ezkerretik eskumara: **Maria Reyes Larrañaga, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, Juli Bernedo, Edurne Lasa, Begoña Sorazu, Rosi Garate, M. Tere Laskurain, Nieves Kortabitarte, Basili Toral, Ana M. Intxausti, M. Angel Garate, ezezaguna, Pedro Etxeberria eta Manu Zubiaurre.** Aurrean bizkarra ematen agertzen diren apaizak: **Don Migel Zabalo, Don Juan Jose Arakama, Don Julian Eguren eta Don Jose Juaristi.**

A



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83




ELENA

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko, 49-1 Tel. 943 74 11 89

“Waterpolo ez da oso kirol ezaguna Euskal Herrian”



Aitor
Gisasola

- **Adina:** 16 urte
- **Kirolik gustukoena:** Igeriketa.
- **Igeri egiteko estilo bat?** Bular-igeriketa.
- **Igerilekua ala Itsasoa?** Igeri egiteko igerilekua, baina bainu bat hartzeko itsasoa.

-Noiz eta nola sortu zen waterpoloko taldearen idea? Igeriketako entrenatzailiak, Izaskunek, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan waterpolo talde bat sortzeko aukeria zauzala komentau zigun. Igeriketa taldekuoi idea ona iruditu jakun eta waterpolo talde mixtua sortu gendun. 7 neska mutil gaiz taldian.

-Egon al da inoiz waterpolo talderik Elgoibarren? Nik dakidala ez. Ez da oso kirol ezaguna, Euskal Herrian ere afizio eta talde gitxi daoz. Jokatu ditzugun partiduetara ere oso ikusle gitxi juten dia.

-Zer moduz Eskolarteko Gipuzkoako Waterpolo Txapelketan? Hernanin jokatu gendun Gipuzkoako Txapelketako finala, eta hernaniarren aurka galdu arren, oso ondo pasau gendun. Parte hartu dogun lehenengo urtia izateko oso emaitza ona da.

-Zein ezaugarri izan behar ditu waterpoloko jokalariei? Kirol konpletua da eta danetik eukitzia komeni da, azkartasuna, indarra, teknika, reflejuak... Kontrarixuen defentsatik desmarkatzen jakin bihar da eta horretarako igarixan azkar itxen jakin. Uretan geldi zaozela, baloia hartu eta aurrera juteko mogimenduak menderau bihar dia.

-Zein dira jokuaren arau nagusiak? Eskolarteko kiroletan partidu

bakoitzak 4 minutuko 3 zati izaten ditxu. Zati bakoitzan bukaeran penaltixak botatzen dia. Partidoko bi zati irabazi bihar dia. Baloia uretan ondoratzea eta bi eskuekin batera hartzea debekatuta da. Faltak eta penaltixak ere badaoz, eta faltarik gogorrenentzako bi minutuko zigorrak daoz. Oin-diokan ez dabe ekipoko inor zigortu eta eskerrak horri, partiduak 12 minutu bakarrik irauten baititxu.

-Asko nekatzen al du waterpoloak? Bai, 12 minutu bakarrik izan arren, uretan zaozenian nahiko luzia itxen da. Erresistentzia haundixa bihar da.

-Une larririk pasatzen al da? Jokalarixen arteko kontaktua daonez, aguadilak eta holakuak eoten dia. Arbitruak ur azpitan gertatzen dana ikusten ez dabanez hankatik heldu eta hondorau itxen dabe. Baina holako gitxi eoten dia.

-Zein postutan jokatzen duzu? Porterua naiz. Porteruantzako lan zailena uretan geldi mantentzia izaten da eta jaurtiketak gelditzeko gorputza uretatik ateratzen ere jakin bihar da.

-Jantzi berezirik behar al da jokatzeke? Txapelketetan lagatzen diguten gauza bakarra golpietaz babesteko uretako txapela da, belarri-xetan jasotako golpietaz babesteko izaten da.

● Maialen Morak urrea eta Ana Etxanizek zilarra irabazi dituzte Euskadiko Atletismo Txapelketan

Maialen Morak Euskadiko Atletismo Txapelketan pisu jaurtiketan parte hartu zuen zapatuan, hilak 5, Gasteizen. 3 kg.ko pilota 10 m. eta 65 zm.ra jaurti zuen eta Euskadiko txapel-dun geratu zen. Ana Etxaniz korrikalari gazteak, berriz, bigarren postua lortu zuen 1.000 m.ko proban. Anak 3'17" behar izan zituen proba amaitzeko, irabazlearengandik segundu eskasera gelditu zen. Bes-

talde, Mintxeta Atletismo Taldeko 5 kidek Gipuzkoako Atletismo Txapelketan parte hartu zuten Zumarragan. Emaitzarik onenak lortu zituztenak hauek dira: Nerea Zubiaurre mendarotarra, 2.000 m.ko proban hirugarren postua lortu zuen; eta Dorleta Aranberri. Azken honek 4 m. eta 18 zm.ko jauzia egin zuen. Lara Urain, berriz, laugarren postuan sailkatu zen pelota jaurtiketan.

“TXUSKO MEMORIALA” 2. ENDURO TXAPELKETA Jon Leiaristi beteranoetan eta Gorka Garate juniorretan izan ziren irabazleak

Txusko Moto Klubak antolatuta Elgoibar herriko 2. Enduro Txapelketa jokatu zen domekan, hilak 6, Albitxuriko zelaietan. Euskadiko Txapelketarako puntuagarria zen txapelketa honetan 66 motorzalek parte hartu zuten, tartean 7 elgoibartarrek. Txapelketak 4 kategoria zituen; juniorrak, seniorrak beteranoak eta hasi berrientzako Junior B maila. Jon Leiaristi elgoibartarrak irabazi zuen

beteranoen kategorian eta Gorka Garate gazteak, berriz, junior mailako txapelketa irabazi zuen bigarren urtez jarraian. Bestalde, Jose Ramon Urresti elgoibartarrak bigarren postua eskuratu zuen beteranoetan eta Iñaki Begiristainek ere bigarren bukatu zuen Junior B mailan delako mailan. Elgoibartarrak ezin hobeto aritu ziren eta enduroak eurentzat sekreturik ez duela argi utzi zuten.

IMH-Elgoibar eskubaloi taldeak Gipuzkoako Kopa irabazi du

Bestalde Irungo Bidasoa taldeak Unai Arrieta fitxatu du

IMH-Elgoibar eskubaloi taldeak pasa den larunbatean, hilak 5, Kiroldegian jokatu zuen Gipuzkoako Kopako azken partidua *Sahatsa Madelesa* taldearen aurka. Kiroldegia zaltetuz gainezka egon zen eta partidu orekatu baten ostean, 22 eta 21 irabazi zuten elgoibartarrek. IMH taldekoek, azken partidua irabazi edo berdintzearekin nahikoa zuten Kopa irabazteko. Partidu osoan aurretik joan ziren, baina 5 minutu falta zirela markagailuan atzetik zeuden eta azken minutuak emozioz beteak izan ziren. Elgoibartarren aurkariek, *Sahatsa* taldekoek, alegia, irabaziz gero Kopa irabazi zezaketan eta gogor eutsi zioten zeukaten aukera bakarrari, baina azkenean elgoibartarrak nagusitu ziren. Aipagarria da IMH taldekoek jarraian irabazten duten bigarren Kopa dela. Argi geratu da, beraz, txapelketa hau gustukoa dutela.



Bigarren urtez jarraian irabazi dute Gipuzkoako Kopa IMH-Elgoibar taldekoek.

Bidasoa eskubaloi taldeak Unai Arrieta fitxatu du

Bestalde, eskubaloia alde batera utzi gabeko, *Asobal* liga jokatzeko duen Irungo *Bidasoa* eskubaloi taldeak, Unai Arrieta jokalaririk gaztea fitxatu duela aipatu behar dugu. Unai Arrate eskubaloi taldean jokatu du aurtengo denboraldia eta egindako lan onaren fruituak jasotzen ari dela dirudi. *Bidaso*koek etorkizun handia aurrikusi diote hegaleko postuan jokatzeko eta Unai fitxatzea erabaki dute.

Bi txapelketa irabazi ditu P.S.K. futbito taldeak asteburuan

P.S.K. futbito talde elgoibartarrak bi txapelketa irabaztea eta Elgoibarko Futbito Txapelketako finalerako sailkatzea lortu zuen asteburuan. Irabazi zuten lehen garaikurra Bailarako Areto Futboleko Txapelketakoa izan zen. Eibarko *Gure Toki* taldearen aurka jokatu zuten finala hilaren 3an, Elgoibarko kiroldegian eta elgoibartarrak 4 eta 1 nagusitu ziren. Partidu istilutsua izan zen eta bigarren zatian *Gure Toki* taldeko jokalariek eta hauen zaletuek erakutsi zuten jokabidea tamalgarria izan zen. Jokogunera zenbait gauza botatzeaz gain, garaikurrak ere lurrera botatu zituzten.

Bestalde, ostiralean, P.S.K. taldeak eta *Lojantzi* Elgoibarko Futbito Txapelketako finala jokatu zuten Kiroldegian bertan. *Lojantzi*koek azken minutuan berdintzea lortu ondoren, partidua hirunako berdinketan bukatu zen eta luzapena jokatu zuten bi taldeek. Luzapenean ez zuten golik sartu eta pe-



Santa Klara auzoko lagunek osatzen dute P.S.K. taldea.

naltietan erabaki zen finala. P.S.K.ko atezainak erabakiorra izan zen penaltiak gelditzekoan eta taldeak bigarren txapela eskuratu zuen. Azkenik, Elgoibarko Futbito Txapelketako finala datorren ostiralean, hilak 11, izango da Kiroldegian. Finalera iristea lortu duten taldeak *Lojantzi* eta nola ez, P.S.K. izan dira. Beraz, bi talde hauen artean erabakiko da futbito ligako txapelketa zein izango den.

EMAITZAK

Futbitoa

KOPAKO FINALA

Lojantzi 4 - P.S.K. 5

LIGAKO FINALERDIAK

Lojantzi 12 - Spartak de Braga 3

Los Peñasos 2 - P.S.K. 3

Futbol 7 Txapelketa

Bar Las Torres 0 - Costo de Doñana 12

Kashima Brewers 2 - Larana Mek. 4

Bar Gure Toki 1 - Inkision 9

La Tarantela 4 - Bar Margon 1

Antzarrak 5 - A.P.T.C.P.K. Dos 1

Kadar C.F. 5 - Grassoppers 3

Faustino VII 0 - Zergatik ez 1

El que sobra 1 - Tiroriro taberna 0

Elur FS 7 - Olaso F.C. 4

Zordunak 7 - Malas Hierbas 3

F.C. Los Cillones 5 - No nos patrocinan 1

Areto futbola

P.S.K. 4 - Bar Gure Toki 1

Eskubaloia

Elgoibar 21 - Sahatsa Madelesa 20

GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO TXAPELKETA

Ikastola 19 - Zarautz 14

Ikastola 6 - Oñati 4

Esku pilota

LAGUNAK PILOTA TXAPELKETA

H. Arribillaga 18 - U. Bilbao 5 (Benj. aur.)

D. Mendibil 14 - J. Guenetxea (Benj. aur.)

K. Arrizabalaga 18 - J. Salazar 5 (Benj.)

G. Zulaika 18 - P. Larrea 15 (Benj.)

AGENDA

Futbitoa, Kiroldegian

Ostirala, 11

22:00 Lojantzi - P.S.K.

Futbol 7, Mintxetan

Larunbata, 12

9:00 Bar Las Torres - Laranja Mekanikoa

9:00 Costo de Doñana - Inkision

10:00 Kaskina Brewers - Bar Gure Toki

10:00 La Tarantela - A.P.T.C.P.K. Dos

11:00 Bar Margon - Grassoppers

11:00 Antzarrak - Kadar C. F.

12:00 Faustino VII - Tiroriro Taberna

12:00 Zergatik ez - Olaso F. C.

13:00 El que sobra - Elur F. S.

13:00 Zordunak - Malas Hierbas

13:00 Los Txatos - No nos patrocinan

13:00 Elgoibar F. S - F. C Los Cillones

Tenisa, Mintxetan

Igandea, 13

Bailarako Tenis Txapelketa

9:00 Joseba Carmona - Martin Egea

10:00 Jaime Mendiguren - Diego Monedero

11:00 Gorka Merino - Bizintzi Urkidi

Muzika

El tiempo de los gitanos, Urdenground edo La reina Margot filmeek elkarrekin gordetzen duten parekotasuna disko batean gauzatu da. Koinzidentzia honek GORAN BREGOVIC du izena. Aita kroaziarra eta ama serbiarra dituen konposatzaile hau, bere lagun Emir Kusturica zinegileari esker, Balkanetako konposatzaile garrantzitsuenetakoa bihurtu da. 16 urterekin White Button rock taldea sortu zuen, gazte yugoslaviarren grinak asetzeko.

Kusturicak berak bultzatuta, GORAN BREGOVICek honen filmaren musika konposatu du. El tiempo de los gitanos (1989), bertako musika folklorikoa eta herrikoa, teknologiarekin parekatuz eta inolako freskotasunik galdu gabe. Berak musikatuko ditu Kusturicaren hurrengo filmak ere, Urdenground eta El sueño de Arizona.

Arrakasta duenez "Weddings and Funerals orchestra"rekin batera kontzertuak eskaintzen hasiko da. Herralde honek dituen musikaren esentzia guztiak musikatzea da Bregovicen nahia, nahiz eta horretarako fusioaren beharra izan.

Iaz argitaratutako diskoan, "EDERLEZI"n alegia, filmeetarako egindako musika agertzen du, Cesaria Evora edo Iggy pop bezalako abeslariak parte hartzen dutelarik... altxor bat bilatu banu bezala.

Iban Urizar



Mikel Urdangarin eta Dixieland Jazz Band gaur, hilak 11, Kultur Errotako azken emanaldian

Kultur Etxeko sotoan izango da gaueko 22:30ean hasita

Kultur Errotaren 9. emanaldian Mikel Urdangarin kantaria eta Dixieland Jazz Band talde elgoibartarra izango dira Kultur Etxeko sotoan. Elgoibarko Izarrak eta Euskara Elkartearen Topaguneak antolatuta du Udalaren laguntzaz.

Mikel Urdangarin, kantaria izateaz gain, bertsolaria ere bada, azken aldia bertsolaritza baztertu samar daukan arren. Zornotzarra da sortzez, nahiz eta orain Gasteizen bizi den. Bi disko kaleratu ditu orain arte eta bigarren diskoaren aurkezpena egingo digu Elgoibarren, Badira hiru aste diskoarena hain zuzen ere. Diskoa, gutun baten izenburua da eta bertan gertatu zaizkion hainbat gauza kontatzen ditu. Dixieland Jazz Band musika talde elgoibartarrak, berriz, jazz eta blues musika joko du. Alberto Iriondo irakasle eta zuzendariaren ardurapean, Musikeskolako hamaika ikaslek osatu berri duten taldea da Dixieland. Bestalde, hau izango da 98-99 ikasturteko Kultur Errotako azken saioa eta urrian hasiko dira emanaldi berriak. Beraz, Kultur Errotaren azken saioa ikustea



Mikel Urdangarin zornotzarrak berak idatzitako bertsokak eta poesiak kantatuko ditu.

nahi dutenek, ostiralean, hilak 11, 22:30ean dute zita, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera 500 pta.koa izango da.

Aipamen bereziak bi elgoibartarrentzat Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan

Danele Sarriugartek eta Antton Alberdik aipamen bereziak eskuratu zituzten Gipuzkoako Eskolarteko 19. Bertsolari Txapelketan. Bertso paperen atalean parte hartu zuten ikastolako bi bertsolari gaztetxoek eta Zumaian idatzi zituzten bertsokak izan ziren aukeratuak. Sari banaketa Billabonako Olaederra kiroldegian egin zen pasa den maiatzaren 28an. Guztira 41 ikastetxetako haurrek parte hartu zuten txapelketan eta 1350 lan aurkeztu zituzten. Beraz, meritu handiko aipamenak lortu zituzten elgoibartarrek. Bat-bateko txapelketako finala bukatu ondoren eman zitzaion hasiera sari banaketari eta elgoibartarrek Mendiluze, Azpillaga, Joserra Gartzia eta beste hainbat bertsolari ezagunen eskutik jaso zituzten euren sariak.



Goiko argazkian, bigarrena ezkerretik bigarrena da Danela Sarriugarte. Behekoan, erdikoa Antton Alberdi.



Kultur errota




Kultur errota



Kultur errota

Ekainak 11, ostirala Kultur Etxeko SOTOAN Gaueko 22:30ean



Mikel Urdangarin

KANTARIA

Mikel bertsolaria eta kantaria dugu. Berak idatzitako bertsoei musika jarri eta kantatu egiten ditu. Zornotzan jaio zen nahiz eta gaur egun Gasteizen bizi den. Bi disko kaleratu ditu orain arte eta bigarren diskoa aurkeztuko digu Elgoibarren, "Badira hiru aste" diskoa hain zuzen ere.



Dixieland Jazz Band

TALDE ELGOIBARTARRA

12 elgoibartar gaztek osatu berri duten musika taldea da *Dixieland*. Musikeskolako ikasleak dira denak eta *jazza* eta *bluesa* jotzen dute. Taldeko zuzendaria, berriz, Alberto Iriondo musika irakaslea da. Kultur Errotako emanaldia taldearen jendaurreko estraineiko kontzertua izango da eta 8 pieza eskainiko dizkigute.

Sarrera
500 pta.



ELGOIBAR ELKARTEA
BERRI ELGOIBARTARRA
TOPAGunea



Elgoibarko Izarra K.E.




Elgoibarko Udala



Kultur errota



Kultur errota



Kultur errota

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak . . . 943 461111
Txanda hartzeko . 943 743354
Planning-a 943 742950
Alkoholiko Anonimoak . 943740385
D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
Gurutze Gorria . . 943 743864
Mendaroko Ospitalea . . 943 032800
Odol Emaileak . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . . 943 740442
PESA (Eibar) . . 902 10 12 10
Taxi geltokia . . . 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua . . 943 744366
Udal Kirol Patronatua . 943 744415
Kultura Zerbitzua . . 943 742158
Mendaroko Udala . . 943 756100
Ongizate zerbitzua . . 943741008
Udaletxea 943 741050
Udalzaingoa . . . 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . . . 943 741626
Kiroldegia 943 744415
Kontsumo Bulegoa . . 943 743088
Liburutegia 943 743525
Musika Eskola . . 943 742145
Mintxeta 943 744315
Parrokia 943 740842
Postetxea 943 741547
Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . 943 740296
Zaharren Biltokia . . 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola . . . 943 74 21 41
HHI (EPA) 943 74 08 80
Herri Eskola . . . 943 74 08 79
I.M.H. 943 74 41 32
Herri Institutua
Arreiturre . . . 943 74 02 67
Ezenarro (Meka) . . 943 74 44 80
Ikastola 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea . . 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
El Diario Vasco . . . 943 74 40 73
El Correo Español . . 943 74 10 82
Egin 943 10 84 21
Zazpiki Irratia . . 943 74 34 74

11 ostirala

21:30 KAFE-TERTULIA

Gaia: Hauteskunde programaren aurkezpena
Antolatzailea: Mendaroko Talde Independentea
Azpilgoetako Abade-Etxean

22:30 KULTUR

ERROTA
Mikel Urdangarin abeslaria eta *Dixieland Band* musika taldea
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra
Kultur Etxeko sotoan
Sarrera: 500 pta.

12 larunbata

12:00 IKASTOLAREN EGUNA

Antolatzailea: Elgoibarko Ikastola

12:30 KARAKATE

MIKOLOGI ELKARTEAREN 25. URTEMUGA
Hildako bazkideen oroimenezko meza
San Bartolome Parrokian

19:30-22:15 ZINEA

“A primera vista”

21:30 KONTZERTUA

“Tanatos” eta “A Gritos” talde nafarrak
Gaztetxean
Sarrera doan

13 igandea

18:30 GELATXO

ORKESTA
Plaza Handian

19:30-22:15 ZINEA

“A primera vista”

14 astelehena

22:15 ZINEA

“A primera vista”

18 ostirala

22:15 ZINEA

“Las fuerzas de la naturaleza”

ZINEA



Zuzendaria: Irwin Winkler.
Antzezleak: Val Kilmer,
Mira Sorvino, Kelly McGillis.

A primera vista

Virgil Adamson (Val Kilmer) haurra zenean itsu geratu zen. Masajista da eta oso pozik bizi da herri txiki eta lasaian. New York-eko neska batekin maitementzen denean, ordea, goitik behera aldatuko zaio bizimodua. Neskak begietako operazioa egitera bultzatuko du. Dena primeran irteno da eta Virgilek ikusmena berreskuratuko du. Izugarritzko aldaketa izango da hori eta gauzak ikusteko gai izan arren, gauzarik arruntenak ere harri-garriak irudituko zaizkio.

● **"Araba Euskaraz 99"ra joateko txartelak salgai**

La Puebla de Labarkan ekainaren 20an, domeka, egingo den *Araba Euskaraz 99ra* joateko autobus txartelak, Elgoibarko Izarrak Ubitarte 4an duen egoitzara joanez edo 943 74 16 26 telefonora deituz eskura daitezke. Elkarteko bazkideek 700 pta. ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek 1000 pta. Mendaron, *Ormola* edo *Txirristaka* tabernetan jarriko dira salgai. Autobusak, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek jarri ditu, Elgoibarko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz.

● **Euskara ikastaroak uztailean AEKn**

Elgoibarko AEK Euskaltegiak euskara ikastaroak antolatu ditu uztaileko. Ikastarook 2 edo 3 ordukoak izango dira eta goizez emango dira. Ikasleen euskara indartzeko, iraileko EGAKo azterketa prestatzeko eta irakaskuntzako perfilak ateratzeko ikastaroak izango dira. Matrikulatzeko edo informazio gehiagorako AEK Euskaltegiak Plaza Txikia 3an duen egoitzara joan edo telefonoz hots egin (943 74 13 32) ekainaren 25a baino lehen. Langabetuek eta ikasleek matrikula erdia ordainduko dute Udalak subentzionatuta.

● **Kafe-Tertulia gaur, hilak 11, Mendaron**

Gaur, hilak 11, Mendaroko Talde Independentek Kafe-Tertulia antolatu du bere hauteskunde programa zertan den azaltzeko eta bertara hurbiltzen direnekin solasaldia izateko. Saioa gaueko 21:30ean hasiko da Azpilgoetako Abade-Etxean.

● **Ikastolaren eguna zapatuan, hilak 12**

Ikastolak, Gurasoen Eguna eta Ikasle Ohien Eguna Ikastolaren Eguna izeneko jaialdian bateratu ditu. Ekainaren 12an izango den jaialdi honetan, Ikastolaren hezkuntza komunitatearen partaide guztiek hartuko dute parte. Jaia eguerdiko 12:00etan hasiko da; bideokonferentziak, *Chat-a*, Ikastola Irratia, laborategiak. etab. ikusteko aukera izango da. Gero, ikasleek gurasoekin batera jolasetan parte hartuko dute frontoian Ikastolako argazki zaharrak salgai jarriko diren erakusketa bat ere izango da. Eguerdiko 14:00etan lagunarteko bazkaria egingo dute, musika eta guzti. Ondoren, DBH 4ko ikasleei, eta entrenatzaileei dominak banatuko zaizkie. Edonork izena eman edo informazioa jasotzeko dei dezala 943 74 44 41 telefonora.

● **Itxaropena Abesbatzaren kontzertua ostiralean, hilak 18, Donostian**

Elgoibarko Itxaropena Abesbatzak kontzertua eskainiko du datorren ostiralean, hilak 18, Donostiako Sagrada Familia parrokian. Emanaldia arratsaldeko 20:00etan hasiko da.

● **Karakate Mikologi Elkartearen sorreraren 25. urtemugako ospakizunak**

Karakate Mikologi Elkarteak aurten bere sorreraren 25. urtemuga betetzen du. Hau dela-eta, zenbait ekitaldi antolatu dituzte ekainaren 12rako, larunbata: eguerdiko 12:30etan bazkide izan diren hildakoak gogoratuz, San Bartolome Parrokian meza izango da. Jarraian, bazkide guztien argazkia aterako dute, eta arratsaldeko 14:30tan anaiarteko bazkaria egingo dute elkartearen. Musika ekitaldi batek alaituko du bazkalostea eta ondoren, 25. urteurrenaren oroigarri bana jasoko dute bazkideek.



● **Zezenzale peñen jaia Tolosan**

Elgoibarko *Luis Mazzantini Txoko Taurinoak* Tolosan egingo den Euskadiko zezenzale peñen bilkurara joateko txangoa antolatu du. Txangoa ekainaren 27an izango da, baina izena emateko azken eguna astelehena, hilak 14, izango da. Izen ematea Usoa tabernan edo 943 74 16 00 telefonora deituz egin daiteke.

● **Produktu biologikoen dastaketa**

Surya belardendak produktu biologikoen dastaketara gonbidatzen ditu herritarrak. Zapatuan, hilak 12, goizeko 10:00etan hasiko da dastaketa saioa eta joan nahi duten guztiak daude gonbidatuta.

T X A N D A K

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
12	Etxeberría	Etxeberría (Santa Ana kalean)
13	Etxeberría	Etxeberría (Santa Ana kalean)
14	Zabaleta	Zabaleta
15	Etxeberría	Etxeberría (Errosario kalean)
16	Escala	Escala
17	Bidasolo	Bidasolo
18	Yudego	Yudego

* (eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38

ANDUAGA: Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

13 igandea Zabaleta

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Asteburuatarako kamarera behar da. ☎ 943 12 73 34
- ◆ Pertsona euskalduna behar da 2 urteko umea zaintzeko. ☎ 943 74 42 97 (20:00etatik aurrera)
- ◆ Elgoibarren senar-emazte edadetu zaintzeko emakume bat behar da. ☎ 943 29 05 12
- ◆ Neska gaztea behar da ekainaren amaieratik irailaren 15era arte Zarratzen 2 ume zaintzeko. Interna eta astean egun bat libre. ☎ 943 74 15 20 (Arantxa)
- ◆ 25 eta 40 urte arteko kamarera behar da jatetxe batean lan egiteko. Esperientziarekin. *Jaika* Jatetxea. Beharrezkoa abuztuan lan egitea. ☎ 943 74 03 89
- ◆ Pertsona behar da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. ☎ 943 74 35 31
- ◆ Kamareroa behar da udan Debaiko taberna batean lan egiteko. ☎ 943 19 23 77

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Emakumea eskaintzen da gaixok edo umeak egun osoz zaintzeko. Esperientzia daukat. ☎ 943 17 47 70
- ◆ Neska eskaintzen da tabernak, lokalak eta dendak goizez garbitzeko. ☎ 943 17 29 20.
- ◆ Edadetuak zaintzeko esperientziadun emakumea eskaintzen da. ☎ 943 74 25 39 (Maria Luisa)

Etxebizitzak

- ◆ Etxea alokatzen dut Zumaian. Uztaila eta iraila. ☎ 943 86 05 93 (18:00etatik 21:00etara. Loli)
- ◆ Apartamentua alokatzen dut Torrevieján. Udán. ☎ 943 74 24 50
- ◆ 23 urteko gazte koadrila batek lokala alokatuko luke. Hilean 25.000 pezeta ordaintzeko prest gaude. ☎ 943 74 13 82
- ◆ Pisua alokatzen dut, altzariekín. San Frantzisko, 12. ☎ 943 74 16 71 (Ana)
- ◆ Etxebizitza salgai, altzariekín. 4 gela, egongela-jangela, sukalddea, 2 komun eta trasteroa dauka. Kanpoko aldera ematen du eta eguzkitsua da. Berritua. ☎ 943 74 40 31/943 74 14 54
- ◆ Pisua edo buhardila alokatuko nuke. ☎ 943 74 31 75
- ◆ Pisua alokatzen dut P.M. Urruzuno 8-1. ☎ 943 74 12 75

Bestelakoak

- ◆ *Bus* izenari erantzuten dion ehi-za txakurra galdu da. Lepoko berdea dauka. Aurkitzen duenak deitu telefono honetara. ☎ 943 74 17 01 (Manolo)
- ◆ Urrezko katea galdu dut Madalatik Artetxera bitarteko bidean. Norbaitek aurkitu badu, mesedez deitu dezala 943 74 10 85 telefonora.
- ◆ 6 hilabete baino gutxiago dituen pastor aleman txakurra erosi-ko nuke. ☎ 943 75 50 71
- ◆ Kotxesila egiten den kotxe kapota eskaintzen dut, osagai guztiekín. ☎ 943 74 33 59 (20:30etik 22:30era)
- ◆ *Jane* markako haur kotxesila galdu duenak Udaltzaingoaeren bulegotik pasa daiteke bila.
- ◆ Taberna hartuko nuke errentan. Elgoibarren edo inguruan. ☎ 943 17 47 70

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Opel Ascona salgai. 62.000 km. Egoera onean. ☎ 943 74 39 42
- ◆ Musika aparailua salgai, altzariekín. Platoa, irratia, bi pletina eta ekualizadorea dauka. Prezio onean. ☎ 943 74 23 89

Agurrak

- ◆ Zorionak **Maitaneri** eta **Joanesi**, hilaren 10ean eta 11n urteak bete dituztelako. Ikastolako 6. mailakoen partez, eta ea finalera heltzen garen.
- ◆ Zorionak **Ikastolako 6. mailako neskei eta mutili** Gipuzkoako eskubaloiko fasean finalerdietara heldu direlako. Ea suerte pis-ka bat duten.
- ◆ Zorionak **Antonio Conderi** hilaren 13an urteak beteko ditueko. Bere familiaren eta Cristinaren partez. Egun ona pasa ezazu.
- ◆ Zorionak **"Teacher"**, igandean urteak bete zenituelako. Estelaren, Naiararen, Ainhoaren eta Tamararen partez. Ez bidali lan asko oportetan.
- ◆ Zorionak **Aneri**, ekainaren 12an urteak beteko dituelako. Ikastolako gela osoaren partez.
- ◆ Zorionak **Garikori**, ekainaren 8an 15 urte bete zituelako. Pilarreko DBH 2ko neska-mutilen partez.

- ◆ Zorionak **ama**. Zer moduz igarotzea espero duzu zure eguna? Zorionak hilaren 12an 37 urte beteko dituzulako. Alasneren eta Maitaneren partez.
- ◆ Zorionak **Jokin**, hilaren 13an 9 urte beteko dituzulako. Familia osoaren partez.
- ◆ Zorionak **Antonio Gallardori**, larunbatean 17 urte bete zituelako. Zure lagunen partez.
- ◆ Zorionak **Miguel Angeli**, hilaren 6an 44 urte bete zituelako. Familiaren partez.
- ◆ Zorionak **Ander Aranbarriri**, hilaren 4an 7 urte bete zituelako. Gurasoen eta anaia Ioneren partez.
- ◆ Zorionak **Maria Eugenia** eta **Davidi** beraien ezkontza egunean. Egoitzen eta Mirenen partez.
- ◆ Zorionak **Jeidiri**, ekainaren 10ean urteak bete zituelako. Nieblaren eta 6. mailakoen partez.
- ◆ Zorionak **Leire Apellanizi**, ekainaren 3an urteak bete zituelako. Elgoibarko txistularien partez.
- ◆ Zorionak **Joanes Rodrigezi**, gaur urteak bete dituelako. 6. mailakoen eta bereziki A.G.A. ren partez.




- ◆ Zorionak **Joni** igandean urtebete egingo duela-ko. Gurasoen eta familia guztiaren partez.

- ◆ Dozena bat mila musu eta zorionak **Joanesi**, etxeko guztien partez.



- ◆ Zorionak **Maddi** 2. urtebetetzan.



- ◆ Zorionak **Noeliari**, ekainaren 8an 18 urte bete zituelako. Familiaren eta koadrilakoen partez. Sorayaren partez muxu handi bat.



- ◆ Zorionak **Amiatxu**, hilaren 12an urteak beteko dituzulako. Familia osoaren partez.

- ◆ Zorionak **Harritz Igartuari**, hilaren 17an 4 urte beteko dituelako. Izebaren eta familia guztiaren partez.



Agurrak



- ◆ Zorionak **Amaia Saenzi**, ekainaren 14an 13 urte beteko dituelako. Gurasoen eta familiakoen partez.



- ◆ Zorionak **Jose txu Andoniri**, hilaren 13an 6 urte beteko dituelako. Familia osoaren partez.



- ◆ Zorionak **Antionari**, gaur, ostirala, urteak bete dituelako. Familiaren partez.



- ◆ Zorionak **Mireni**, astelehenean, hilak 14, 2 urte beteko dituelako. Gurasoen eta familia osoaren partez.



- ◆ Zorionak **pitxilora**, zuri ere iritsi zaizu urteguna. Ondo ondo pasau maitxia eta muxu handi haundi bat familia

- osoaren partez **Ane**.

- ◆ Zorionak **Unai**, ekainaren 17an urtebete egingo duzulako. Elgoibarko familiaren partez.



- ◆ Zorionak **Elena Larizi**, ekainaren 12an 5 urte beteko dituelako. Familiako- en partez. Zorionak eta musu

- handi bat, Gorkaren eta Ioneren partez ere.

- ◆ **Joanes Etxa-berri** zorionak, datorren asteazkenean 5 urte beteko dituelako. Etxeko- en partez.



- ◆ Zorionak **Asier Agirregomez-kortari**, bihar 4 urte beteko dituelako. Familiaren partez, eguna ondo pasa.



W E S T E T I K A

- ▲ Depilazioa: hotza eta beroa
- ▲ Solarium-a
- ▲ Masajeak
- ▲ Aurpegi garbiketak
- ▲ Manikura-pedikura
- ▲ Makilajeak

Orain, zerbitzu berria eskaintzen dugu

SOLARIUM BERTIKALA

10 minutuko sesioak

San Inazio, 4 • Tel: 943 74 27 25

Belaustegi Baserria
JATETKEA



San Migel gaina · 20870 ELGOIBAR · Gipuzkoa · Tel. 943 74 31 02





*haize berriak
Udaletxe berrian*

bozkatu

